

EUSKADIREN AHOTSA. CON VOZ PROPIA.



Aitor
Esteban Bravo
atsegin dut  

MARIBEL VAQUERO Hondarribia, 2023ko uztailaren 17an

Balioa izango duen diskurtso bakarria hizlariak bertan eskainiko duena izango da.
El único discurso válido será el pronunciado por el orador o la oradora en el acto.

Bost egun falta dira soilik kanpaina amaitzeko. Azken txanpan gaude! Gaur azken inkestak atera dira. Hala ere Inkestak, inkesta dira. Onerako, zein txarrerako. Benetako emaitza uztailaren 23 gauean ezagutuko dugu. Lanera beraz, eta gu gurera!

Batzuk kanpaina hasi zuten guri faxista deituz; gaur, aldiz, gezurra diogula diote pentsioak 2018 eta 2019an IPCra gure negoziatioari esker igo zirela esaten dugulako. Eta horrela izan zen. Gustatu ala ez gustatu bere burua hain ezkertiar eta progresistatzat duten horiei. PPrekin adostu zen 2018 urterako aurrekontuan, eta zentsurazko mozioa ostean, PSOEk, gurekin horrela itunduta bete behar izan zuena. Bestela nola igoko ziren, bada, pentsioak aurretik beharrezko dirua barneratu gabe balitz? Nola aurretiko konpromiso bat betearazi izan ez bagenu?

Ostegunean Zarautzen Euzko Alderdi Jeltzaleari botoa emateko arrazoiak familia eta lagunen artean zabaltzeko laguntza eskatu nuen. Gaur zuengana jotzen dut eskaera berberarekin. Igandean botoa emateko zalantzan dagoenari EAJri botoa emateko hamaika arrazoi direla esateko;

- Alderdi Abertzalea gara gu, politika abertzalea egiten duena, Euskadin, Europan eta estatuan, ordezkaritza dugun leku guztietan. Euskadi bihotzean dugu, eta buruan, Euskadi da gure iparorratza.
- Politika demokratikoa egiten duen alderdia gara, errespetutik, elkarriketan eta akordioan oinarritutako politika egiten dugu. Demagogia eta populismorik gabekoa.
- Sinesgarriak gara. Urte luzeetan egindako lana da gure bermea.
- Gure ahotsa zuzeneko da, hauteskunde lemak dioten bezala "con voz propia", hau da, bitartekaririk gabekoa. Guk ez dugu iraganeko motxilarik, guk ez dugu dependentziarik, gurea Euskadiren eta bere herritarren nahien eta interesen defentsa da.

Zer da EUSKADIREN AHOTSA izatea? Talde bezala dugun indarra Herriaren mesedetan jartzea; Transferentziak negoziatzea; 2021-26 aldirako Kupoaren Legea eguneratzea; zorpetzeko gaitasuna aitortzea foru-aldundiei; Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera transferitzea, RGlarekin koordinatzeko; zerga eta tasa berriak hitzartzea; pilota eta surf selekzioen ofizialtasuna aitortzea; inbertsioak tren-azpiegituretan, Añarbeko kanaleko urbidea; Europako funtsen banaketari jarraipen berezia egitea; euskal lehen sektorearen beharrak defendatzea, industria eta enpresak babestea; estatuko gobernuari Frantziarekin ahaleginak eta bat egin ditzala, mugen irekiera exijituz... Guzti hori eta gehiago izan da gure egitekoa Madrilan, Euskadiren defentsaren lehen lerroa izan gara eta!

Euskadiren eta euskal herritarren beharrak lehen lerroan ipintzea. Hori da Euskadiren ahotsa izatea; Herri honen ongizatearen oinarri duen AUTOGOBERNUA eta herri honen ERABAKITZEKO ESKUBIDEA defendatzea!

Queremos tener un GRUPO FUERTE en Madrid, y lo seremos, porque allí se toman algunas decisiones importantes que afectan nos afectan; entre otras:

Decisiones sobre Seguridad Social

Sobre pensiones Y seguiremos garantizando el sistema público pensiones para nuestros mayores, con pensiones dignas y justas.

Se decide sobre energía y sus costes, es decir: la factura de la luz y el gas que nos afectan a todas y todos, a usuarios particulares y a las empresas e industria

Se decide allí sobre las inversiones en nuestras costas e infraestructuras ferroviarias no transferidas.

Sobre reglas fiscales en Europa, que fijan los límites de gasto de nuestros ayuntamientos y Diputaciones.

Sobre políticas migratorias...

Estos son algunos ejemplos de lo que se decide en Madrid, y sobre lo que tendremos que dialogar y negociar también la próxima legislatura.

Nos presentamos con un programa con contenido, que busca el bienestar de las vascas y vascos y que Euskadi avance. Con voz propia, sin populismos, ni demagogia.

Y que a su vez pone freno a los ataques de la extrema derecha, y a la involución democrática. Pondremos pie con pared para que no se dé marcha atrás en los derechos logrados y en los ataques a nuestro autogobierno y a nuestra identidad como Pueblo.

De lo que decidamos el domingo dependerá: que nuestra voz, bienestar, deseos y reivindicaciones sean defendidas y atendidas en Madrid; que Euskadi tenga voz propia... Y para todo ello necesitamos la fuerza de tu voto.

Datorren legealdiko estropada zaila izango da. Itsasoa zakar arituko da, inboluzio demokratikorako arriskua dago. Gure autogobernua eta gu geu ere, erasoen jomugan gaude. Nahiz eta galerna abisua egon, gu AURRERA, EUSKADIREN ALDE, EAJk baduelako programa, taldea eta indarra! Datorren igandean hautestontziak bete behar ditugu! Berdez bete behar ditugu! Ikurrinaren kolorearekin! Estropada irabazteko, aukera bakarra: Euzko Alderdi Jeltzalea! Gora Euskadi Askatuta!